

...eta

# kittto!

851 zkoa.  
2013-VI-7



404 urte  
hamaika  
bizipen



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.  
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34  
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com







**IRAZABAL**  
clínica dental

**Antonio Murillo doktorea**

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**Maitane G. Iñiguez doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera

**08.00 - 22.00**

Zapatuetan

**10.00 - 14.00**

**IRAZABAL HORTZ-KLINIKA**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)



# ASTEAN ESANAK

"Zenbait herrialde, esaterako Jugoslavia eta Irak, arma nuklearrik ez zutelako erasotu izanak, Ipar Koreako agintariak zentzuzko ondoriara eramanez dituzte: bonba lortu behar zuten. Eta, ustez, hori egin dute"

(RAFALE POCH, KAZETARIA)

"Enpresetan %70 LHko lanpostuak dira, %20 goi mailako ikasketak dituztenak eta %10 kualifikatu gabekoak"

(IRAKI MUJICA, TEKNIKAKO ZUZENDARIA)

"Kongresutik irten gabe diputatu batek gin-tonic bat edan dezake; edo bi, prezioaren mauka kontutan izanda. Zilegi da edozein Legebiltzarretan alkohola edatea? Kataluniakoan ez, Britainia Handikoan edo Gasteizkoan bai"

(ARANTXA URRETAIBIZKAIA, KAZETARIA)

"Espainiakoa konstitukrazia da, ezin dugulako botorik eman tartean beste inor sartu gabe. Zer gutxiago Katalunian erreferenduma baino? Senar-emazteen erabakia da matrimonioarekin jarraitu edo ez, ez familia osoarena"

(XAVIER SALA I MARTIN, EKONOMILARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

**JAUSI.-** Erori. "Eskutik basua jausi ei jakon". Makal, indar barik, triste. "Senarra agertzen zan oso jausixa eta arlotetua".

**JAZO.-** Gertatu, pasatu. "Plaentxiatik Eibarrera eguneroko osteria egitten dabon Turkua errekadistiari jazo jakona da".

## eskutitzak

### GREBA EGUNAREN INGURUAN

Joan den egueneko greba orokorrean hainbat komertzio haundik uko egin zioten greba egunari, krisi egoera honi amen eginez. Ezinbestekoa da haien artean El Corte Ingles, Telepizza, BM, DIA, If, Eroski... aipatzea. Azken honetan, salatzeak da langileei ukatu zaien grebarako eskubidea eta pikete informatiboan parte hartzen zuen kide bati komertzio horretako segurtasun zaindariak eginiko eraso sexista. Komertzio txiki eta taberna batzuen jarrera ere ezin ahaztu, kontuan izanda epe luzera horiek izango direla kaltetue-nak; Eibarko denda txiki asko zabalik egon dira, bide

batez beraiek bizi duten egoera berdinean dauden beste dendei kalte izugarria eginez. Azkenik, azpimarratzekoa da Ertzaintzak egun guztian eduki zuen jarrera: pikete informatiboan lana oztopatuz, horiek identifikatuz eta jarraituz, horrela egun guztiko jazarpen polizialari utsiz. Guzti horren gainetik, borrokari eusteko eta batzeko deia luzatzen dugu. Jakin badakigu eta kolektiboan egiten den lanak fruitu aberasgarriak ematen dituela oso. Hemendik aurrera eta denok batera... Segi xirikatzen eta iraultzen!

**EIBARKO ERNAI**

### ORAINDIK ERE BADA JENDE JATORRA

Gaur egun bizi dugun garaian gero eta jende gutxiago ikus dezakegu, diruagatik ez bada, lan egin edo inori laguntzeko prest dagoena. Ez dut ukatuko badirela talde eta norbanakoak horrela jokatzen dutenak, eta txalagarria iruditzen zait benetan.

Horren harira, joan zen ostiralean zortziak aldera Untzagan geundela, gizonezko bat etorri zitzaidan esanaz: "Begira, atzoko grebarekin ados nengoan, baina ezin

izan nuen egin. Tori bestela nominatik kendu behar zidaten dirua, eta erabali zuek egiten duzuen lan horretan laguntzeko". Guztiz txundituta eta pozik gelditu nintzen jarrera hori ikusita. Eskerrik asko. Gero eta gehiago miresten ditut, diruak izaten duen erakartasun hori alde batera utziz, justuak deritzoten kausak babesten dituztenak.

**ANTTON ALDALUR**

### GURIDIKO OBRAK DIRELA-ETA

Untzagako obrak direla eta, aurreko astelehene-tik (maiatzak 27) aurrera, Eibarko Udalak eta Pesa autobus enpresak behe aldeko biztanleriari geltoki gabe laga gaituzte berriro ere. Donostira, Bergarara, Aretxabale-tara... bidaiatu behar baduzu, Barrenatik ere, El Corte Ingleserako geltokiraino igo beharko duzu... Inork ez daki noiz arte: beharbada hamabost egun, hoge, hila-

bete bat... Bost axola zaie Udalarri eta Pesa enpresari, burua apur bat nekazeko ere ez daude prest... Hain zaila da autobusen irteera Untzaga plazan jartzea? Mendarora doazten autobusak hortik ateratzen dira eta ez dute geltoki aldaketarik izan. Hain zaila da Udala-rentzat biztanleriak pixkat arduratzea?

**AUTOBUS ERABILTZAILEAK**



Euskara Elkarteak

**ARGITARRAZTZAILEA:** ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONORAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBUZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

**kutxa** gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria





Jesus Bilbao izan zen izazko saritua.

## Gure Baloioak Sarirako hautagaixak

Errespetua, zintzotasuna, alkarlana eta oiñarrizko beste balio batzuk azpimarratzeko asmoz emoten dituden Gure Baloioak Sarixetarako hautagaixak aurkezteko epia ekaiñaren 25era arte egongo da zabalik. Edonork dauka dauka horretarako aukeria, beti be kontuan izanda hautagaixak hóknek baldintzak bete biharko dituduala: Debabarrenian jaixotakua izatia edo, bestela, bertan bizi edo biharrian jardundakua izatia eta, horrekin batera, bere balio-egaittik aittatzekua dan jardunbidia izatia. Sarixen eta hautagaixak presentatzeko moduaren gaiñeko informaziño guztia [www.gurebaloioak.com](http://www.gurebaloioak.com) webgunian eskuratu leike.



**9.920 euro Ekimen alkartiari**

Eguazten goizian udaletxian siñatutako hitzarmenaren bitartez, Udalak 9.920 euro emon detsaz Ekingune alkartiari, "oin dala gitxi sortutako enpreseri aholkularitza eta laguntasuna emoteko". Hórren koordinaziñuarekin be arduratuko da Azittaingo industrialdian dagan alkartia. Hitzarmena Miguel de los Toyos alkatiak eta Esther Velasco Ekinguneko ordezkariak siñatu eben.

## Urkiko jaixak asteburuan

Aurreko barixakuan presentau zittuen Urkiko Jai Batzordekuak gaur hasi eta domekara arte ospatuko diran auzoko jaixak. Egitarauak urterokuari jarraituko detsa, "aldaketa txiki batzukin". Programia osatzeko 15.000 euroko aurrekontua erabili dabe eta horri moldatuta antolatu dittue jai-egitaraua osatzen daben ekitaldixak. Gaur 19.00etan ekingo detsa jaixari: Ustekabe fanfarrekuak kalejiran ibilliko dira auzoko kaliak musikiarekin alaizten. Arrateko Andra Mari ikastetxian jokuak preparau dittue eta Ceba taberna parian, barriz, urteroko moduan auzoko naguxixeri omenaldixa egingo detsa. Gabian, 23.30xetatik aurrera kontzertua emongo dabe eMePebo5t taldekuak. Egitarau osua agendan, 20. orrialdian irakorri zeinkie.



Urkiko Jai Batzordekuak aurtengo egitaraua presentatzen. SILBIA HERNANDEZ

## Trafiko aldaketak Untzagan

Aurreko astian Untzagan baldosak konpontzeko biharra hasi zittuen eta horregaittik trafikuan aldaketa batzuk dagoz han inguruan: Pegoraren parian aparkatzia debekatu dabe, Ego-Gain kaletik urtetzen diran autobusak bueltia emon ahal izateko eta, horrekin batera, Untzagatik San Juan kalera juateko errepide zatixa (Guridi taberna parian) itxitta dago. Taxi geltokixaren aldameneko zatixan, barriz, trafikuak jai-egunetako ibilbidiari jarraituko detsa biharra amaittu arte eta, beraz, San Juan kaletik datozen ibilgailuak ezin izango dabe ezkerretara, Juan Gisasola kalerantz jarraitzeko bidia hartu.



## Gerrako umien dokumentala

Ego Ibarra batzordiak bere webgunian, bideueri eskindutako atalian "Hárek gerrako úmiak" dokumentala zintzilikatu dau: 15 miñutuko iraupena dakan ikus-entzunezkuak 2012xan alkarrizketatutako "gerrako umien" lekukotasunak jasotzen dittue eta hórreri Eibartarren Ahotan proiektuaren barruan alkarrizketatu ziran beste hainbatenak gehittu detsaz.





## Egogaiñeko bihargiñak protestan

Eskualdeko hiru erresidentzian, Eibarko Egogain Gerontologia Zentruan, Elgoibarren eta Mutrikun greba mugagabian dagoz maiztaren erdialdetik, hitzarmen propioaren alde. Horren harira, eguaztenian alkarretarazia

egiñ eben Untzagan. Edozelan be, probintziako zaharren egoitza gehixenak egin dabenez, Egogaiñeko bihargiñak be egun gitxi barru Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako hitzarmena siñatzia espero dabe.

## Dendarixen presidenta barrixa

Guby Neskak dendako Nekane Fernandez Agirre da Eibarko Dendarixen Elkarteeko presidenta barrixa, oiñ aste batzuk alkarteko bazkidiak egindako batzarrian zozketa bidez hala erabagittu. Bere aurretik Lide-ko Esther Bilbatuak bete dabenez kargua urte birako hartu dau, baiña dagoeneko hainbat lan-talde osatu dittue, ardurak eta egin biharrekuak alkarren artian banatzeko asmoz. Dendarixen Elkarteak 130 bazkide dakaz gaur egunian.



*Nekane Esther Bilbatuaren lekukua hartu dau. S.H.*

## autuan

### KANPOKO IGERILEKUA

Kirol Patronatuak aditzera emon dabenez, kanpoko igerilekua datorren asteko zapatuan, hillaren 15ian zabalduko dabe. Hortik aurrera uda osuan egunero zabalduko dabe igerilekua, 10.30xetatik 20.00etara.



### ESKLEROSI ALKARTIA

Jaieguna antolatu dabe domeka honetarako Adela Gipuzkoa Elkartekuak Zarautzen, esklerosia daken gaixuendako errehabilitaziño zentruetako zerbitzuak pagatzeko dirua batzeko asmoz. Programari 10.00etan ekingo ditse eta, bestiak beste, aisialdirako gunia, harrijasotzaillien saia, abesbatzen emanaldixak, herri-bazkarixa, erromerixia, lehiaketak eta bestelako ekitaldixak antolatu dittue. Jaixak 20.00ak arte iraungo dau.



## Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Beilatokia Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

Bulegoa:  
Bidebarrieta, 6

### 24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 82 15 39 · [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

**GRUPO Funeuskadi**  
El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao ·  
· Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe ·  
· Espinosa de los Monteros ·



En Tecnología y Creatividad



SOLUCIONES TECNOLÓGICAS



## Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

[www.eitek.net](http://www.eitek.net)



asteko  
76.408  
datua

Mugi txartel igorri ditu Gipuzkoako garraio agintaritzak ekañaren hasierara arte. Txartel hórretatik 43.658 arruntak dira eta 32.750 taldekakuak; arrunten artian, barriz, 13.608 anonimuak dira eta 30.050 pertsonalizautakuak

## Jazarpen sindikala salatu dabe

LAB sindikatuak deittuta, eguazte-  
nian alkarretartzia egiñ eben epai-  
tegi parian "Alfako zuzendaritzak sin-  
dikatuako ordezkari xeri egindako ja-  
zarpena salatzeke". Protestia egitten  
eben bittartian, LAB-eko ordezkari  
biren kontrako epaiketa bana egitten  
ziharduen barruan. Sindikatuako or-  
dezkari xen berbetan, "delegatu bat  
hillebete birako etxera bialdu dabe,  
soldata barik, enpresia egin nahi zi-  
ttuan kaleratziak salatzeke ekintza  
sindikala egittiagaittik. Eta beste  
bihargin bateri, bera be LAB-eko afi-  
liatua eta grebalarixa, biharrian egindako aka-  
tsarengaittik zigorra ezarri detse". Kasu bixen  
kontrako helegitea presentau dau sindikatuak  
eta, salatu dabenez, "horrelako zigorren helbu-



Eguazte-  
nian epaitegi parian egindako alkarretartzia. SILBIA H.

rua bihariñak kikiltzea eta zuzendaritzak nahi dabena iñor kontra euki barik egittia da. Bihargin asko depresiño, ansiedade eta bestelakuengaittik bajan dagoz horregaittik".



## Iheslarixeri bisittan

Eibarko iheslari politikueri Iparraldera bisittan jua jakozen hainbat eibartar aurreko asteburuko zapa-  
tuan. Handik bueltan kontau dabenez, "iheslarixak  
euren egoeriaren barri emon zeskuen eta, erretra-  
tuan ikusi leikian moduan, aldarte ederrian pasau  
genduan eguna".

## LOMCE-ren gaiñeko hitzaldixa

Datorren martitzenerako LOMCE-Hezkuntza Erreformaren gaiñan berba egitteko hitzaldixa antolatu dabe Eibarko LOMCE Ez tal-  
dekuak, gaixarekin interesa daken guztiendako. Portalean  
19.30xetan izango dan saiuan legiaren gaiñeko informaziñua emoi-  
tiarekin batera, horren kontra egoteko arrazoiak azalduko dittue:  
"Wert legiak, bestiak beste, umien eta ikastetxien arteko lehia-  
kortasuna areagotzia ekarriko dau, ikastetxe guztietan erlijijiñua  
baloreduna izatia eragingo dau, unibersidadera elite txiki bateko  
kidiak bakarrik aillegauko dira...". Hórrekin eta beste kontu bat-  
zurekin arduratuta, eta gaixak dakan garrantzixa ikusitta, guraso,  
irakasle eta herritarrak hitzaldira juatera animau nahi dittue.

## Asier Cuevasi omenaldixa

Asier Cuevas atletak Eibarko Udala-  
ren errekonozimendua jaso eban au-  
rreko barixakuan. Oin dala gitxi 100  
kilometroko lasterketan Europako

txapelundun izan zan eibartarrak "Txo-  
pitea eta Pakea", Oteizaren eskultu-  
riaren erreplika jaso eban Miguel de  
los Toyos alkatiaren eskutik. Ekital-



Cuevas alkatearekin. LEIRE ITURBE

dixaren hasieran Cuevasen  
lagun eta famelixakuen le-  
kukotasunak jasotzen di-  
ttuan bideua ipiñi eben  
eta, horrez gain, Klub De-  
portiboko atleta gaztiak be  
omenaldixan parte hartzen  
egon ziran. Munduko Txa-  
pelketarako prestatzen ha-  
sitta dagan Cuevasen  
oroigarrixa jaso eta bere  
esker ona agertu zetsen  
ekitaldixa antolatu eta ber-  
tara juandako guztieri.

## Garagardo jaixa ate joka

Eibar Rugby Taldiak urtero antolatzen daben Garagardo Jaixa da-  
torren asteko martitzenian, hillaren 11n 19.00etan zabalduko da-  
be Untzagan eta hillaren 16ra arte egongo da martxan. Betiko lez,  
karpa ipiñiko dabe plazan eta bertara doiazanak marka eta mo-  
ta diferentietako garagarduekin goza-  
tzeko aukeria eukiko dabe eta, zelan  
ez, jatekua be eskinduko dabe (ukon-  
dua, oillasko-brotxetak, saltxitxak eta  
hanburgesak). Gaiñera, zuzeneko mu-  
sika emanaldixekin girotuko dabe kar-  
pia: martitzenian Mungo-k jardungo  
dau, eguazte-  
nian ZZ Blues Band-ek eta  
eguenian, barriz, Xirimiri Blues taldiak.







MIGUEL LOITXATE (bidaia-blogaria)

## "Janaria edozein bidaiaren parte bat da"

*Aurreko astean Debegesan Ekintzailearen Egunaren harira antolatutako ekitaldian Miguel Loitxatek "Debabarrena Ekinean!" saria jaso zuen ezustean, berak sortutako "El txoko de Lonifasiko" bidaia-blogarengatik. Informatika eta teknologia berrietan buru belarri murgilduta dabilen eibartarrak bere bidaiak, txangoak eta gastroesperientziak kontatzen ditu. Loitxaterekin egon gara, saria jaso duen blogaren inguruan gehiago jakiteko.*

**- Nolakoa da "El txoko de Lonifasiko" bloga?**

Nahiko berria da, berez izako irailan sortu nuen. Aurretik, baina, 2007-2009 bitartean beste blog teknologiko bat izan nuen. Informatikoa naiz eta betidanik gustatu zaizkit teknologiarekin zerikusia duten kontuak. Interneten eta sare sozialetan bidaiei eskainitako hamaika toki daude eta, horien artean handiena minube.com da, behintzat Espainia eta Latinamerika mailan. Horretan hasi nintzen, erabiltzaile aktibo modura, baina besteenak ikusita animatu eta nik ere horrelakoe-tan edukia eskaintzeko aukera nuela pentsatu nuen eta horrela sortu nuen bloga ([www.lonifasiko.com](http://www.lonifasiko.com)). Edukien berri emateko beste sare batzuk aprobetxatzen ditut: Twitter ([twitter.com/Lonifasiko](https://twitter.com/Lonifasiko)), Facebook ([www.facebook.com/Lonifasiko](https://www.facebook.com/Lonifasiko)) eta Minube ([www.minube.com/viajero/Lonifasiko/rincones](http://www.minube.com/viajero/Lonifasiko/rincones)).

**- Bidaiak eta sukaldaritza kontuak, biak batera kontatzen dituzu, ezta?**

Bai, nik "gastroesperientzia" deitu diet. Pentsatzen dut edozein tokitara bidaia-

tzean bertan bizi den jendeak zer jaten duen jakitea eta probatzea garrantzitsua dela. Niretzat, behintzat, jatea bidaiaren zatietako bat da, horregatik lotzen ditut gauza biak. Tokiei buruzko informazioarekin batera jabetxe askotako kritikak idatzi ditut. Hori bai, kritikak guztiz pertsonalak dira.

**- Eta gainontzeko edukiak nola lantzen dituzu? Bertako informazioa nondik eskuratzen duzu?**

Orain arte behintzat blogak jasotzen dituen eduki guztiak nire esperientzia pertsonaletik irten dira zuzen-zuzenean. Egia esan "nire" esan beharrean "geure" esan beharko nuke, familian bidaiatzen dugulako,



*Askok esaten dutenari kaso egin barik, umeekin bidaiatu daitekeela uste du Loitxatek. Eurak urte biko umearekin ibiltzen dira.*

**Bere esperientzia pertsonalak kontatzen ditu blogean, bidaietan ezagutzen dituen tokiei gastronomiako kontuak gehituta**

urte bi bete berri dituen gure txikiarekin batera. Bide batez, umeekin bidaiatzea posible dela argi laga nahi dut. Bidaiatzeko eta leku berriak ezagutzeko zaletasuna umetatik daukat, aspalditik datorkit, batez ere aitarekin mendian asko ibiltzetik.

**- Zure blogera sartzen denak nongo informazioa aurkituko du?**

Ezer baino lehen, argi laga nahi dut nik ez daukatela nire burua bidaiari handitzat, Costa Rica, Mexiko, Croacia, Bulgaria eta Italia bisitatu ditugu, baina geure bidaiak horrelakoak baino, asteburu edo egun gutxiko "eskapadak" dira. Egia esateko, askotan ez da beharrezkoa izaten oso urrutira mugitzea ezagutzen ez ditugun tokiak aurkitzeko, sarritan gertu dauzkagun tokietako asko ezezagunak egiten zaizkigu-eta.



*Jakin badakigu medikuntzan eta beste batzuetan azkenaldixan izandako hobekuntzeri esker gero eta urte gehixago hartzeko aukeria dakagula, baiña halanda be etxe bakarrian 100 urtien bueltan dabizen lau lagun topatzia ez da eguneroko kontua eta Legarren, Egogain gerontologia zentruan, mendea bete daberen lau amama eguzela jakinda, ezin lau andra hórrek ezagutzeko okasiñua pasatzen laga.*

## Lau amama, 404 urte eta hamaika kontu

**M**ari Jose Agirregabiria asistenta sozialak ipiñi ginttuan pistaren gaiñian eta berak egindako inbitaziñuari baietza emonda, martitzenian ezagutu genduaz urtiak idazteko hiru zifra erabilli bihar dittuen lau amamak. Legarreko zaharren egoitzan oin momentuan 126 residente dagoz eta, hórretatik aparte, beste 28 gehixago hartzen dittue eguneko zentruan eta 13 gehixago buruko gaitzak dittuenen unidadian.

Maiatzian bertan 100 urte sasoi betian egin dittuan amametako bat gurekin berba egitteko moduan ez eguanez, bere bizitza ondo ezagutzen daberen Mari Josek kontau deskuz **Pepita Albizuren** gorabeherak: "*Pepita Legorretan jaixo zan, 1913ko maiatzaren 10ian, baiña bizitzaren zatirik haundiña Hegoameriketan emon dau. Gaztetan Donostian neskame egon zan, baiña gerra denporan hamendik alde egiñ eban, Hego Amerikara eta han, Ar-*

*gentina eta beste herrialde batzuetan bizi izan zan, Montevideotik (Uruguai) Eibarrera aillegau jakan arte*".

Harrittuta, zergaittik bueltatu zan galdetuta, holan erantzun desku: "*Urtietan aurrrera zoiala ikusitta eta han bera zaintzeko famelixarik ez zekanez, 86 urterekin herri- ra bueltatzia eskatu eban 1999xan, horretarako eguan aukeria aprobetxauta. Izan be, han zaharrekin arduratzeko baliabide gitxiago dago eta beria ez da kasu bakarra izan, goguan dakat Caracasetik repatriauta gurera etorri zan beste gizonen bat be*".

Pepitari animalixak mordua gustau jakozela be kontau desku: "*Usueri jatekua emoten jarduten eban, ikustekua zan usuak gaiñian zelan ipintzen jakozen! Euskalduna izanda be, horrenbeste urtian han-*



**Valentina Unzetabarrenetxea 100 urtiak beteko ditte urrixaren 25ian. Aldamenian, Jesus Mari semia. SILBIA HERNANDEZ**

*dik bueltan ez eban euskeraz barbarik egi- tten, guri lantzian behiñ berba solteren bat esaten zeskun, baiña hortik aparte ezer gi- txi. Baiña txakurrekin berba egi- tterakuan, hor natural urtetzen jakon euskeria*".

### Gorosta auzoko alabia

Alzheimerrek horretarako aukeria lapur- tuta, bigarren amamaren barri semiak emon zeskun. **Valentina Unzetabarrene- txeak** oindiok ez dakaz 100 urtiak, baiña urrixaren 25ian kandeleri putz egi- ttia espero dabe danak. Irakorle askorendako ezaguna izango dan **Jesus M<sup>a</sup> Ugarteburu** "Mandi"-ren ama Gorosta auzoko Itxaso basarriko alabia da, "*baiña Mandiolara ez- kondu zan eta ni eta nere anaixa Amadeo han jaixo giñan*".

Semiak kontau deskunez, "*ama andra go- gorra izan da beti, aitta zanak kalian egi- tten eban biharra eta ortuan, oi- llueri jatekua emoten eta basarriko beste biharretan jar- duten eban. Hortik aparte, andra zintzua, bestieri laguntzekua izan da, nahiz eta ba- tzueta genixo piska bat zittala euki*".

Basarriko bizimodua atzian laga eban fa- melixiak 1960xan: "*Kalera bizitzera bajau giñan orduan, Arraguetara. Kanbixo haun- dixan izan zan danondako. Lehelengo urtiak oso tristiak izan ziran, berandako ez eze fa- melixa guztiarendako. Basarrixan txorixen*



**Elgetan jaixotakua dan Teodora danen artian zaharrena da. Apirillian 105 urte egin zittuan.**





**Eibar KE sortu zela 75 urte beteko dira 2015ean eta, horren harira antolatuko dituztenentzat, Maria Otxandiano Aranegik egindako logotipoa erabiliko dute. Pozarren dago Telekomunikabideetan Injeniaritza Teknikoa eta Diseinu Grafikoari lotutako masterra ikasi dituen eibartarra lehiaketa irabazi duelako. Umetatik da talde armaginare jarraitzailea eta Eibar K.E.-aren bazkidea eta horrelako hitzordu seinalatuan berak sortutako irudia erabiltzea gauza handia izango dela uste du.**

**- Nola sortu zenuen logotipoa? Zer adierazi nahi zenuen?**

Jokatzeko tarte gutxi zegoen: zenbakia agertzea ezinbestekoa zen. Hortik abiatuta, mugimendua adieraziko zuen zer bait egin nahi nuen eta zenbakiak piskat okertuta antxixkietan doan jokalaria irudia egiteko aukera bazegoela ikusi eta hori marrazteari ekin nion. Izan ere, zenbakia okertu ezean foball jokalaria baino dantzaria zirudien. Aurkeztutako 40 proposamenetik bost aukeratu zituzten eta azkenean nik marraztutakoa.

**- Diseinuarekin lotutako ikasketak egin dituzu. Horretan diharduzu beharrean?**

Nire kabuz dihardut beharrean diseinu grafikoarekin lotutako hainbat arlotan eta web orriak ere sortzen ditut. Eibar eta inguruan urteetan martxan dauden hainbat enpresari garbi-usaina emateko irudi berria sortu diet eta Aldatze ikastetxearentzat promozio-bideoa ere egin dut, on-line dendak

sortzen eta kudeatzen ditut... Une honetan Anabel argazkidean jornada erdiz beharrean dihardut eta pozik nago.

**- Eibar FT-ren jarraitzaile izanda, lehiaketa irabazteak poz handia emango zizun, ala?**

Pentsa! Bizitza osoan zale-tua izan naiz, umetatik Eibar K.E.-ko bazkidea naiz eta ahal dudan guztietan Ipuruara joaten naiz partiduak ikustera. Beste lehiaketa batzuk irabazi arren, sortutako lana denbora tarte jakin batean erabili eta hor amaitzen da, baina 75. urteurrenaren inguruko ospakizunek oso denbora tarte luzea beteko dute.

**- Nola diharduzu bizitzen igotera fasea? Aurten maila igoko duela pentsatzen duzu?**

Aurreko domekako partiduan benetan urduri egon nintzen eta norgehiagoka amaituta ere, gauean oraindik urduri segitzen nuen eta kostata lortu nuen lo hartzea. Baina aurten bai, aurten Eibar taldeak igotzea lortuko du.



Maria Otxandiano  
(EIBAR KE-ren LOGOaren EGILEA)

**"Taldeko zale-tua naizenez, poza bikoitza izan da"**

**BARRIO** autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es  
info@autocaresbarrio.es

**MOBILA: 659 87 89 89**  
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

**Radio Eibar**

CADENA  
**SER**

**104,0 FM**

**Izadi**

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29





## JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO, sanjuanetarako prest

**B**adira aste batzuk Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta gazte talde bat barixakuero biltzen hasi zela, azken urteotako bideari jarraituta, San Juan jaien inguruan antolatzen den egitarauari "beste eredu herrikoi, parekide, euskaldun eta partehartzaileari jarraituta" sortutako beste egitarau bat gehitzeko.

Gazteen berbetan, "apirila amaieran hasi ginen astero biltzen, San Juan jaiak ailegatu aurretik dena prest edukitzeko sasoiz ibiltzeko. Bestalde, urteko beste sasoi batzuetan ere batzen gara, batez ere herriko jaien inguruan (Arrateko jaietan, sanandresetan...) beste jarduera batzuk antolatzeko".

Ekainean sartuta gaude eta, aurreikusita zuten moduan, sanjuanetarako kontu gehienak lotuta dituzte eta, gainera, hainbat berritasun sartu dituztela ere aurreratu digute: "jaiak promozionatzeko eta eza-gutzera emateko asmoz bideoa egiten dihardugu. Hortik aparte, hilaren 23an (Gazte Eguna) 500 lagunentzako herri bazkaria antolatu dugu, baina aurten Bizimian elkartekoek prestatuko dute bazkari-

rako paella eta bertarako txartelak honez-keroko salgai ipini ditugu Buenos Aires, Depor eta Karrika tabernetan (13 euro). Bigarren aukera bat ere badago: koadrilak dirua batu eta gaurko bilerara ekarrita, tike-tak emango diegu hala nahi dutenei. Edozein modutan, gogoratu txartela erosteko eguna hilaren 16a izango dela".

**Egitarauaren barruan txalaparta ikastaroa**

Baina egitarauari begiratuta sorpresa nagusienetako bat San Juan egunean ailegatu da: San Juan eguna "mozorro eguna" berrizendatu dute gazteek eta horretarako aukeratu duten gaia, berriz, zirkoa da. Eta berritasunei errepasoa ematen amaitzeko, janari lehiaketa ere egingo dute.

### Egitaraua

#### - Ekainak 21, barixakua

19.00etan ekingo diote egitarauari, Untzagatik txosnagunera (Errebalera) triki-poteoa eginda. 20.00ak aldera txosnak zabaldu eta elektrotxaranga jardungo du jendea animatzeko zuzeneko musika eskaintzen. Gauean Skakeitan eta Eutsi taldeek kontzertua emango dute eta ondoren dj-ek jarraituko dute musikarekin (Little Detroit, Beato vs Fari & Txanprax Percussion, Sticky Ritmo Visuals).

#### - Ekainak 22, zapatua

Herri kirolak. Herrira-ren bazkaria. Arratsaldean txalaparta ikastaroa. Gauean mojito eta sangria jaia (Gazte txearren eskutik). Kontzertuak: Hake Mate eta Dj Okerreko; Rumania & Txalaparta.

#### - Ekainak 23, domeka. Gazte Eguna.

Dultzaineroei ongi etorria eta triki poteoa. 15.00etan herri bazkaria (Bizimian egindako paella) eta ondoren jolasak eta elektrotxaranga. Gauean San Juan sua (Gazte txearren eskutik) eta kontzertuak: On eta eMePebo5t.

#### - Ekainak 24, astelehena. Mozorro Eguna: Zirkoa.

Arratsaldean janari lehiaketa eta gauean karaoketa. Janari lehiaketan parte hartu nahi duenak alde aurretik izena eman beharko du, jaixakherrixakherrixandako@gmail.com helbidera idatzita.

**MIHIAN ekainak**  
**KILI-KILI, 16**  
EUSKARAZ IBILI

**ARABA**  
**EUSKARAZ**  
**2013**  
**ARESKETA**  
**IKASTOLA**  
**AMURRIO**

**autobus**  
**zerBITZua**

**IRTEERA:**  
09.30etan

**BUELTA:**  
19.30etan

**9 eurotan**

**J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA**  
**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA**

**info@gerritek.net**  
**www.gerritek.net**

**SOLUZIO**  
**INFORMATIKOAK:**

- Marka guztietako zerbitzu tekniko eta salmenta
- Neurria egindako software-aren garapena

**ASUS**  
**DELL**  
**hp**  
**SAMSUNG**  
**TOSHIBA**  
Leading Innovation >>>

**Gerritek**  
INFORMATIKA

**Txaltxa-Zelai, 4-6**  
Tel: 943-033892 / Faxe: 943-031521

# + OSASUN GAZTA

## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra  
- terapia neurala  
- osteopatia

**miren albistegi sojo**  
HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK  
Errebal, 14  
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**  
HORTZ KLINIKA

**ARAT** Hortz Klinika  
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

FORBIO ETXEBARRIA, 4 - Esk. Tel: 943 20 18 51

R.P.S. 148/12

**bista eder**  
clínica dental - hortz klinika

Irribarreak gaztetu egiten gaitu

Inplante eta Hortz-Estetikan adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Inplanteak / Laser Teknologia / PADI

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02

**IRAZABAL**  
clínica dental

Irribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**hartz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

**Mª Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
hortz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskua  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044




## Fisioterapia



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.  
OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

## Okulistak



**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82

Oftalmologoak  
Centro de Oftalmología Avanzada



**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikia

- Miopia ebakuntzak femtosekundoko laserrarekin.
- Katarata ebakuntzak lente multifokalarekin.
- Presbiziaren kirurgia.



Plaza Barria 2. 2º.  
Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOAK**  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGOAK**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOAK**

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak



**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia  
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina  
PSIKOLOGOAK  
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA**  
**RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

**TRAUMATOLOGOAK:** Azkarate eta González Bosch doktoreak  
**TRATAMENDUAK** hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu:  
deitu 943-206776 telefono zenbakira

## Sostoa abesbatza Valladolidera

Bihar eta etzi Valladoliden izango dira Sostoa abesbatzakoak, hango Euskal Etxekoek gonbidatuta. Eibartarrek irteera hiria eza-gutzeko aprobetxatuko dute, baina, nola ez, kontzertua ere emango dute hiriburuaren alde zaharrean dagoen San Miguel eta San Julian elizan, 20.30etan. Emanaldirako prestatu duten erre-pertorioan Euskal Herriko herri-kantuak eta Gaztela ingurukoak tartekatuko dituztela aurreratu dute.



## Lehiaketa berrirako jende bila

Euskal Telebistan laster abian ipiniko duten "Hizkamizka" lehiaketa berrian parte hartze-ko lehiakideak behar dituzte. Lehiaketan kultura orokorreko galderei erantzun beharko die-te eta parte hartzera animatzen direnek programa bakoitzeko 300 euro irabazteko aukera izango dutela azaldu du-te programako arduradunek:

"Saio bakoitzean bi lehiakidek jardungo dute eta galderei ondo erantzunez puntu gehien lortzen duenak aurrera egingo du, hurrengo saioan berriz ere lehiatzeko". Saioak ekainean eta uztailan Donostiako Miramongo estudioetan grabatzen hasiko dira eta parte hartu ahal izateko nahikoa da 18 urtetik gorako euskalduna izatea. Animatez gero hizkamizka@eitb.com helbidera idatzi, eskatzen dituzten datuak adierazita (izen-abizenak, adina, e-posta, telefonoa, helbidea, herria eta lurraldea).



## Interesgunea Liburutegian

Ikasten Debabarrenako Esperientzia Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak "Mantenimiento, seguridad y ahorro eléctrico en el hogar" ikastaroa antolatu du. Lehen klasea martitzenean eman zuten Angel Aldalur irakasleak, 18.00etan Portalean eta horren aitzakiarekin, Juan San Martin Liburutegiak etxeko ekonomiari eskainitako interesgunea prestatu du: "Liburuak, aldizkariak eta interneteko baliabideak biltzen duen bibliografía eskaintzen da, gure eskutan dauden aurrezteko moduak aurkezteko asmoz".



Eibarko kideek jai-giroan ospatu zuten Mintza Eguna.

## Berbetan-ekoak ederto Mintza Egunean

Aurreko zapatuan 300 bat mintzalagun elkartu ziren Elgoibarren, Euskal Herriko Mintza Eguna ospatzeko eta han izan ziren ...eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan programan parte hartzen duten kide asko. Egitarauari jarraituta, hamaiketako hartu eta, jarraian, Elgoibarren bisita gidatua joan ziren. Bazkaria Maalako parkean egin zuten eta bazkalostean, berriz, omenaldietarako tartea ailegatu zen: bereziki hunkigarria

izan zen Kontxa Laspiur eibartarrak iazko abuztuan hil zen Arrate Berrizbeitia Berbetaneko kidea zenaren amari, Feli Gorosabeli lora-sorta emateko unea. Bestalde, Bagera elkarteak oso detaile polita izan zuten, jaiaren parte hartu zuten lagun guztiei liburu bana oparitu zien-eta. Eguna primeran pasatu zuten eta, agurtu aurretik, eMePebo5t taldeak girotutako erromerian dantzan egiteko aukera ere izan zen.



## Ustekabe, Areetatik Urkira

Aurreko zapatuan Areetan (Getxon) jardun zuten Ustekabe fanfarrekoak, Arenas C.F. taldea animatzen. Handik bueltan kontatu dutenez, "aurreko asteburuko Uribe Kostara joan garen bigarren aldian izan zen, orain dela urte batzuk Eibarko Danborradarekin batera Gorlizan jardun genuen eta". Irteera aprobetxatuta,

Bizkaiko Zubiaren aurrean argazkia egin zuten eibartarrek. Eguerdian egin zuten kalejiran "giro polita" nagusitu zela azpimarratuta, emanaldia zelai barruan amaitu zuten "A por ellos" kantuekin. Gaur, berriz, Eibarren bertan jardungo du fanfarreak, aspaldiko partez Urkiko jaiaren hasierako kalejiran 19.00etatik aurrera.




## Kaleetan Kantuz-ekoek primeran eman zuten zapatua

Aurreko zapatua jai giroan eman zuten Kaleetan Kantuz-ekoek. Eibartarrekin batera, beste herri batzuetatik jaiarekin bat egitera etorritako beste askok jardun zuten eta jaiak 135 lagunetik gora batu zituela azaldu dute antolatzaileek. Eguna Untzagako jubilatutxan, kanpotik etorritako taldeei ongietorria emanda hasi zuten eta eguerdian abesbatzen kalejira hasi zen. Kaleetan kantuan ibili eta gero, udaletxeko arkupeetan baz-



Argazia atera eta kantuan hasi ziren Kaleetan-ekoak. LEIRE ITURBE

kaldu zuten eta, jakina, bazkalostea kantuan eman zuten, jaiari agur esateko ordua ailegatu arte.



## Argazki erakusketak tabernan

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek, hileroko martxari jarraituta, argazki erakusketak ipini dituzte ikusgai ohiko tabernetan. Ekainaren 30era arte Jose Luis Irigoien "Mendiak eta lainoak" izenburukoa ikusteko aukera izango da El Ambigú kafetegian. Klub Deportiboaren tabernan, berriz, Joan Palmer argazkilaria "Tristeza" izenburukoa dago ikusgai. Eta Pedro Arriolaren "Berlin" izenburuko argazki bilduma Portalea tabernan ikus daiteke.



## Javier Sagarzazu Topalekuan

Gaur arratsaldean inauguratuko dute Topalekuan hilaren 17ra arte ikusgai egongo den Javier Sagarzazuren margolanen erakusketa. Iru-nen 1966an lehen erakusketa egin zuenetik, Sagarzazuk bere lanak bakarka erakusteko antolatutako erakusketak 90etik gorakoak dira: besteak beste, Baiona, Biarritz, Bilbo, Hondarribi, Irun, Madril, Iruñea, Donostia, Valentzia, Zaragoza, Zarautz, Bordele, Caracas, Londres, Munich, Praga eta Vienan erakutsi ditu bere margolanak eta, hortik aparte, beste artista batzuekin batera, hamaika tokitan egin diren taldekako erakusketetan ere izan da parte hartzen. Ikasturteari agur esateko erakusketa ohiko ordutegian bisitatzeko aukera izango da: astelehenetik barixakura 19.00etatik 21.00etara eta asteburuetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



## laburrak

### KONTZERTUA

Gaur 18.00etan Musika Eskolako hainbat ikasleek kontzertua emango dute Untzagan, udaletxeko arkupeetan. Joko dituzten instrumentuak txirula, bibolina, trikitia, saxoa, perkusioa eta akordeoia dira.



### ASTEBURUA KARRIKAN

Gaur gauerdian "Etxeko Zapatilak" zuzenean eta ondoren Jam Session hartuko ditu Karrika tabernak. Eta zapatu gauerdian Kogollopartykrew-k Fari vs. Angelo saioa aurkeztuko du.

## Olinpiada Txikiak Iturburun

Bihar goizean Juan Antonio Mogel ikastolakoek Olinpiada Txikiak ospatuko dituzte Iturburun. Bertara joateko autobusa 10.00etan irtengo da Ego-Gainetik. 10.15etatik 10.45etara 2013-2014 ikasturtean Iturburura joango diren ume eta gurasoek Iturburu ikastetxea ezagutzeko aukera izango dute eta, horretarako tartea amaituta, 10.45ak aldera olinpiadetan parte hartuko duten umeak kantxan batuko dira, tutoreek lagunduta. 11.00etan denek elkarrekin "Niri euskaraz mesedez" abestu eta jarraian ekingo zaie kirol probei: 4 urtekoak hasiko dira (zirkuitua edo txingak), ondoren 3 urtekoen txanda izango da (kaskara biltzea edo motorrak), haien atzetik 5 urtekoek jardungo dute (uztaien jolasa eta pelota-pasa) eta 2 urtekoen motor-lasterketarekin amaituko dute. Atsedendia ondoan nagusien sokatira saioak jokatu eta parte-hartzaileei dominak banatu eta gero, 13.30etan etxera bueltatzeko autobusa irtengo da.

## Infantil mailako atletak Euskadiko txapelketan

**Ez domina bat edo bi, bederatzi baizik.** Emaitza bikainak eskuratu dituzte Eibarko Klub Deportiboko atletismo taldeko infantil mailako neska-mutilek. Urrezko lau dominekin etorri ziren Eibarrera: Andoni Egurrolak eta Jone de Castrok jabalina jaurtiketan, Markel Gutierrezek 3.000 metrokoan eta Julen Teranek altuera jauzian. Zilarrezkoa eskuratu zuten Elena Susaetak jabalinarekin, Nerea Etxanizek 3.000 metrokoan eta Eneko Gisasolak eta Malen Illaramendik pertika jauzian. Eta, azkenik, brontzezkoa Iker Alberdik pisu jaurtiketan. Podiumetik gertu geratu ziren Maddi Alberdi (4.a diskoan), Maider Diez (4.a pisuan) eta Alaitz Gonzalez (5.a 150 metroko proban).



## San Juan pilota torneoak hasiko da martitzenean

**Hurrengo bi martitzenetan (hilaren 11n eta 18an) jokatu-ko dira** San Juan pilota torneoak finalerdiak; finalak, bestalde, zapatuan, ekainaren 22an, jokatu-ko dira. 11ko jardunaldian, 19.15etan hasiko den jaialdian, honako partiduetak jokatu-ko dira: 4 eta erdiaren barruan, Zubizarreta (Eskoriatza) vs Zuazua (Arrasate); eta binaka, Arrizabalaga-Agirresarobe (Elgoibar-Eibar) vs Kruz-Agirrebeña (Urretxu-Eibar).

Arraten domekan, Kaelo Memorialaren barruan jokatu-ko partiduetan, Narbaiza aita-seekek 22-16 irabazi zieten Andonegi eta Gaztañagari eta Zubizarreta-Bengoezteak 22-9 Larreategi-Agirrebeñari.



## Areto-foballeko I. Mundialitoan izena emateko aukera

**6 eta 14 urte bitarteko neska-mutilek uztailaren 1etik 13ra** Unibertsitate Laboralean egingo den areto-foballeko I. Mundialitoan parte hartzeko aukera dute. Horretarako, baina, izena eman beharko dute euren ikastetxeetan, directorbase@debarbarrenafs.org helbidean edo 606-889872 telefono zenbakian eta epea bihar amaituko da. Aste bietan astelehene-arte zapatuta arte iraungo duen ekitaldia goizez egingo da, 10.00etatik 14.00ak arte eta izen-emateak 35 euroko prezioa du.

### Gehituz izeneko asteburua

Gaurtik domekara arte astebu-

ru bete antolatu du Debarbarrena areto-foballeko taldeak Elgoibarren zabalduko duten karparen inguruan. Gaur 19.00etan irekiko dute karpa eta, Concepto Egilero eskaintako aurrekuaren ondoren, xake txapelketa, eskolarteko "Fut-Sala" txapelketa eta musika eta dantza latinoak izango dira. Bihar bazkaria egingo dute 14.30etan eta, jarraian, hainbat aktibitate egingo dira, gaueko 22.30etan karaokearekin eta DJ-arekin jardunaldia amaitzeko. Etzi, bestalde, beterran arteko partiduetak jokatu-ko dira Olaizaga kiroldegian eta 14.30etan beterran bazkaria izango da karpian.

## Pello Osoro onena bere mailan Ondarruko Triatloian

**Asteburuan Ana Casaresek eta Nicholas Kas-teleinek irabazitako** Ondarruko Triatloian Olinpikoan izan ziren Delteco ETT-ko hainbat ordezkari. Egiten diharduen denboraldi bikaina berretsiz, Pello Osorok, sailkapen absolutuan 9. postua lortzeaz gain, bere mailako sailkapena irabazi zuen. Iñigo Unanue eta Jon Illaramendi 7.a eta 18.a izan ziren, hurrenez hurren, beterran 1 mailan. Eta beterran 2 mailan, Javi Murcia 7.a izan zen eta Alberto Agirre 9.a.



Alberto Agirre.

## Waterpolistak finalistak bostetik lautuan

**Urbat-Urkotronic-eko waterpolistak Gipuzkoako Ko-**

pako bost finaletatik lautuan izango dira. Bihar Hernanin jokatu-ko diren final horietan izango diren gure harrobiko lau ordezkari, probintziako waterpoloko goi-goian daudela erakusteko asmoz. Eskol mailan gaur egungo txapelketak dira eta hori berrestera doaz; txapelak bila, bestalde, infantil, kadete eta jubenetik mailakoek.





## Zaletuen Kopa Garajes Garcia.com-entzat

Ez txapelduna, ez Esmorga Akarra: ez ziren gauza izan golik sartzeko zapatuan Unben jokaturako partiduan. Penaltietan, aldiz, ondo moldatu ziren eta baita ia denak gauzatu, Esmorgakoek kale egindako bakarrik eman baitzion titulua Garajes Garcia-ri. Talde irabazlearen Enrique Guruzeta izendatu zuten finaleko jokalaria onena.

Partidua amaituta, sariak banatu zitzaizkien Kiroljokoa ligako ohorezko koadroa osatu dutenei. Horrela, Txokok txapela jaso zuen, Garajes Garcia.com-ek 2. sailkatuari dagokion saria eta Durangok 3.ari dagokiona. Kiroltasunaren saria Fontaneria Mujikarentzat izan zen; Kuki saria, gol gutxien jaso duen atezainarentzat, Durangoko Luisek jaso zuen; eta goleatzaile nagusiarena, Igor Arriagak (Txokokoak 27 gol sartu ditu ligan). Kiroljokoa saria, bestalde, Txokorenzat izan da, txapeldunen arteko finalean Ermuko txapeldunari irabazi baitzion.



*Txokok liga irabazi zuen, beste sari batzuekin batera. LEIRE ITURBE*



## Galdaramiñoko mendi lasterketaren 5. edizioa

Domeka goizean, 11.00etan hasita, jokatu da Galdaramiñoko probaren bosgarren edizioa. 14 kilometro eta erdiko lasterketak 1.000 metrotik gorako desnibela du eta Galdaramiño, Azkonabieta eta Topinburuko gainak zapaltzen ditu. Urkiko jaietako egitarauaren barruko mendi probak berritasuna izango du aurtien: ordu erdi lehenago, 10.30etan, Atzegirekin elkarlanean antolatutako mendi-martxa hasiko da, adimen urritasuna duten lagunez osatutako mendi-taldearekin.

## berriak

### IGERIKETA

Ander Romaratek emaitza ikusgarriak lortu zituen Berlingo mitinean, 50 eta 100 bizkarrean bigarren sailkatuta eta 100 bularrean hirugarren. Durangon jokaturako eskolartero kirol jokoetan, bestalde, Urbateko Maite Barruetabeñak txapela jantzi zuen 400 estilotan. Berarekin izan ziren Lucia Basurko, Anie Erkiaga eta Kattalin Izagirre alebin mailakoek.



### TXIRRINDULARITZA

Limousin taldeko Jon Madariagak irabazi zuen San Juan Saria, Danel Sagasta eta Xabier Jauregiren aurretik. Taldeka Caja Rural izan zen onena eta mendiko sailkapena Madariagak berak eraman zuen.

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea
- Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

AUZO LANEAN **Eibar** **DENON ARTEAN DENONTZAT**

**Nolako Eibar nahi dugu 2020an?**

**Batzar irekia: Ekainak 12, asteazkena, 19:00etan**

**Portaleako ikastaro gelan**

**ehbildu**





## Ferreiro azpitxapeldun squash-eko Nafarroako Masterrean

Klub Deportiboko ordezkariak lan bikaina egin du ranking-eko hamasei onenak bildu dituen Nafarroako Masterraren XIV. edizioan. Eibartarrak ez zuen bide erraza izan, lehenengo partiduan Eduardo de Carlos iazko irabazlea kanporatu behar izan baitzuen, ezustekoa emanez. Finalean, bestalde, 3-1 galdu zuen Eduardo Razquinekin.



## Abasolo ondo Nafarroako Itzulian

Debabarrenako Borja Abasolok 16. postuan amaitu zuen aurten ohiko bost etapetik bira murriztu den proba. Bigarrena izan zen etaparik gogorrena eta hor 9. postuan sailkatu zen, baina lehenengoan izandako matxurak (denbora garrantzitsua galdu zuen) ez zion utzi sailkapenean gorago egitea. Itzulia Caja Ruraleko Antonio Molinak irabazi zuen.

## Finalista Eguna eta Itzulia

Eguraldia ez zen hain gaizto portatu aurreko asteburuan eta Eibarko Itzuliak eta Finalista Eguna giro polita bizi izan zuten. Itzulian ehun lagunetik gora izan ziren eta neska-mutilen artean hainbat domina banatu ziren domekan.



PERIKO IRIONDO



## Hiru-txirlo txapelketaren azken jardunaldia

Azpeitiko Garmendipen jokatuko da bihar eguerdian Gipuzkoako txapelketaren 44. edizioko azken jardunaldia. Behin tiraldi hori amaituta, parrekoak erabakiko dira, ohikoa denez. Zazpi lagun dabilta txapelaren bila: Asola-Berriko Ibai Diez eta San Migueleko Jose Irusta 37 txirlorrek, Elgetako Sebas Aranzabal 36rekin, Lasturreko Gotzon Uranga eta San Migueleko Imanol Osoro eta Unai Elorza 35ekin eta, azke-

nik, Asola-Berriko Bittor Ugarteburu 34rekin. Emakumezkoetan, Olaitz Rodriguez eibartarrak txirlo barreko aldea ateratzen dio Floreagako Idoia Muñoz.

Bazkaldu eta gero, Bolari Egunaren barruan, omenaldia egingo zaie Jesus Mari eta Jose Luis Gorosabeli eta sariak banatuko dira. Gipuzkoako hiru txirlo bolo txapelketako le-



Biharko omenaldia jasoko dutenak.

hen 64 sailkatuek, bestalde, hilaren 22an Garmendipen bertan kanporaketa erara jokatuko den Lehendakari Sarian hartuko dute parte.

## Oviedo-Eibar igoerako 2. kanporaketan



Eibarko zaletuek taldea animatu zuten partiduan. RAMON BETIA

Eibar KE-k 300 sarrera ipini zituen salgai eguaztenean zale-tuen artean domeka arratsaldean, 18.30etan hasita, Eibarrek Oviedoko Carlos Tartiere zelaian jokatuko duen partidurako. Hiru autobus bete dira dagoeneko Eibarko taldea animatzera joateko eta giroa goraka doa. Kanporaketako partidu biak (bai domekakoa eta baita hurrengo zapatuan, hilaren 15ean, Ipuruan 19.30etan jokatuko dena) ETBk eskainiko ditu zuzenean.



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, OIER MIGUEL Caravantes, gaur urtetxua beteko dozu-eta. Amatzok txokolatzeko tartia prestauko detsu!



Zorionak, IZARO Bereziartua Santos, haraiñegun bost urte bete zenuz-eta. Aitxitxa, amama eta tiuen partez.



Zorionak, IZARO, atzo sei urte bete zenuz-eta. Laztan potolo-potolua famelixaren partetik. Ondo pasa Olinpiada txikixan!



Zorionak, UDAZKEN, gure martxosa! Hain bizkor hasi zara eta sei urte domekan. Segi beti alai! Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IZARO, printzesa polittena, haraiñegun bi urte egin zenuz-eta. Aitxitxak, izaba-osaba eta birramamaren partez.



Zorionak, ANDER, gure txapeldunak haraiñegun zortzi urte egin zittuan-eta. Aitta, ama eta Angela zure arrebiaren partez.



Zorionak, ESTHER, martitzenian sei urte bete zenuz-eta. Muxu bat aitatzeko eta amatzoren partez.



Zorionak, UNAX Caño, gaur zure lehelengo urtetxua egingo dozu-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, LIBE, gaur zortzi urte egiten dozuz-eta! Muxu haundi bat Lorea, Jule, Olatz eta danon partez.



Zorionak, MARKEL, bixar zazpi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UXUE, bixar urtebete egingo dozu-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak, JOKIN (bixar 10 urte) eta MIREN Hazas Azkarate (martitzenian 15 egingo dozuz). Jarraitu holan, jator! Etxeko guztien partez.



Zorionak, MADDI, gaur bederatzirte egiten dozuz-eta. Eta baita osaba Asierri be. Etxekuen partez.

## hildakoak

- Teresa Arrillaga Arrillaga. 89 urte. 2013-V-29.
- Benedicto Garcia De Pedro. 92 urte. 2013-VI-1.
- Carmelo Arrasate Ituarte. 87 urte. 2013-VI-2.
- Mertxe Lejonagoitia Azkarate. 81 urte. 2013-VI-2.

## jaiotakoak

- Lucas Ferreiro Lama. 2013-V-24.
- Uxue Gutierrez Araujo. 2013-V-27.
- Reda Ahdaddou. 2013-V-28.
- Estibaliz Nerea Avellaneda. 2013-V-28.
- Paul Teresa Arce. 2013-V-29.
- Elene Aizpun Tudanca. 2013-V-29.
- Izane Sendino Suarez. 2013-VI-2.

## zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)  
**7an: 22.30**  
**8an: 19.45, 22.30**  
**9an: 20.00**  
**10ean: 20.30**

"Efectos secundarios"  
 Zuzendaria: Steven Soderbergh



(2 ARETOAN)  
**7an: 22.30**  
**8an: 19.45, 22.30**  
**9an: 20.00**  
**10ean: 20.30**

"El lado bueno de las cosas"  
 Zuzendaria: David Russell



(ANTZOKIAN)  
**7an: 22.30**  
**8an: 19.45, 22.30**  
**9an: 20.00**  
**10ean: 20.30**

"R3sacón"  
 Zuzendaria: Todd Phillips



## BARIXAKUA 7

### MODA-DESFILEA

**19.00.** Udaberri-udako gazteen moda desfilea. El Corte Inglés-ean (T. Etxebarria kaleko denda parean).

### BILERA

**19.00.** Sanjuanetarako ekitaldiak prestatzeko batzarra, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Eibarko Bizikleta Plazan.

### URKIKO JAIK

**19.00.** Jaien hasiera.  
**19.15.** Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.  
**19.30.** Jokoak. Arrateko Andra Mari ikastetxean.  
**19.30.** Auzoko nagusiei omenaldia. Ceba taberna parean.  
**20.00.** Txikiteoa, Ustekabe fanfarrearekin.  
**23.30.** Kontzertua eMePebo5t taldearekin.

### KONTZERTUA

**22.00.** MaderaCore taldearen kontzertua. Akats tabernan.

## ZAPATUA 8

### OLINPIADA TXIKIAK

**10.00.** Ego-Gainetik Iturburura joateko autobusa.  
**10.45.** Olinpiada Txikiak.  
**13.30.** Bueltarako autobusa.

### URKIKO JAIK

**11.00.** II. Txiki Krosa.  
**11.30.** Diana, gaitajoleekin.

**12.30.** Karate, aeroboxing, batuka box, tai-chi, poniak...  
**12.30.** Salda eta txorizoa. Ceba eta Vila tabernen pareko arkupeetan.  
**16.00.** Umeendako parkea. Arrateko Andra Mari ikastetxean.  
**17.00.** XII. Toka eta igel-toka txapelketa. Polonia Etxeberrian.  
**19.00.** Cava eta otarrainska jaia auzoko tabernetan, Rio Samba Show taldeak girotuta.  
**21.45.** Herri-afaria.  
**23.30.** Berbena, Continente orkestrarekin. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

### KLOWN-A

**18.00.** "Asmakuntzak salgai!!!" klown ikuskizuna, Jolas-en eskutik. El Corte Inglésan (terrazan).

## DOMEKA 9

### TXORI KANTARIAK

**09.00.** Eibarko Hiria Txori Kantarien XIII. Txapelketa. Arraten (euria egingo balu, Altzubarrenen).

### URKIKO JAIK

**10.00.** Mendi-martxa, Atzegikoekin.  
**11.00.** Diana.  
**11.00.** V. Urki-Galdaramiño-Topinburu-Urki mendi-lasterketa.  
**12.30.** Meza. San Jose Obrero elizan.  
**12.30.** XV. Paella lehiaketa.  
**14.00.** Paella lehiaketako epai-mahaia.  
**16.45.** Umeendako jaia eta berbena.

### CANCER

Zer axola dio txarto abesteak? Begira Tamara: ez dauka lotsarik! Zer hoberik abestea baino? Hori bai, letrak ikasi!

### LEO

Tentazioari eutsi ahal izango diozu? Erori edo ez, urduri egongo zara erabakia hartu aurretik. Hain txarto pasatzea ere...

### VIRGO

Ezin izango duzu burutik kendu orain dela egun batzuk kalean ikusi zenuen pertsona hori. Eta berak berdin pentsatzen badu?

**18.00.** Txokolate-jana. Sari-banaketa.  
**18.30.** Umeendako berbena. Txupinazoa eta jaien amaiera. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

### KONTZERTUA

**12.30.** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

## ASTELEHENA 10

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

## MARTITZENA 11

### IKASTEN

**18.00.** Etxe-barruko ekonomia: "El taller ahorro, mantenimiento y seguridad eléctrica en el hogar", Angel Aldalurren eskutik. Portalean.

### GARAGARDO JAIK

**19.00.** Garagardo Jaiaren inaugurazioa (ekainaren 16ra arte). Untzagan.

### HITZALDIA

**19.30.** LOMCE Hezkuntza Erreformari buruzko hitzaldia. Portalean.

## EGUAZTENA 12

### IKASTEN

**11.00.** Kafe-tertulia: "Telebistako saioak". Untzagako jubilatuek etxean.

### KONTZERTUA

**18.00.** Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako rock taldeen kontzertua. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

### DANTZA

**19.00.** Eibarko Dantza Garaikideko umeen taldeen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

### BATZARRA

**19.00.** "Nolako Eibar nahi dugu 2020an?", batzar irekia EH Bilduk deituta. Portalean (ikastaro gelan).

### DANBORRADA

**19.00.** Sanjuanetako danborradarako entsegua, umeendako.  
**20.00.** Helduendako entsegua. B. Sarasketan udalak duen lokalean.

### BILERA

**19.30.** "Jun Hemendik" herri mugimenduaren bilera irekia. Eibarko Bizikleta Plazan.

## EGUENA 13

### KALERATZEAK STOP

**19.00.** Stop Desahucios Debabarrena plataformakoekin bilera.

### AMAÑAKO DANBORRADA

**19.00.** Amañako umeen danborradarako entsegua.  
**20.00.** Helduendako entsegua. Amaña herri ikastetxean.

### DANTZA

**20.00.** Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Sekula erabiltzen ez dituzun zenbat gauza dituzu etxean? Garbiketa egiteko ordua heldu zaizu, gauza berriak aurkitzeko.

### TAURUS

Gauzak modu batean egitea pentsatzen bazenuen ere, aldaketak egin ditzakezu. Erabaki egokia hartzea da gakoa.

### GEMINI

Ai ene! Pozez zoratzen zaude, baina nork jasan zaitzake horrela? Hala ere, zorionak eta gozatu momentu paregabeaz.

### LIBRA

Irakurtzeko sena piztuko da zure barnean. Zein ederra mundu ezberdinak sortzea! Ea liburu egokiak aukeratzeko dituzun.

### SCORPIUS

Noiz sinatuko duzu bakea pertsona horrekin? Ezin zarete beti horrela ibili. Ikamikak alde batera laga. Izan heldua!

### SAGITTARIUS

Ez zabilta bide onetik. Sasoiz zaude, ordea, bide egokia hartu eta gauzan behar den bezala egiteko. Bidean ez galdu!

### CAPRICORNIUS

Presta zaitez Sanjuanetarako. Agian goiz da abisatzeko, baina aurreordenaldia egin beharko duzu forma onean egoteko.

### AQUARIUS

Aurtengoa bai bake santua, inongo hauteskunderik gabe. Krisitik ezin irtenda, ez dago aukera haundirik egin beharrik.

### PISCIS

Gustatuko litzazuke argentinarrek duten azentua edukitzea, ezta? Tamalez, saiatu arren, ez zaizu batere naturala gelditzen.



Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## erakusketak

- ✓ **Ekainaren 17ra arte**  
**JAVIER SAGARZAZU**ren margolanen erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Ekainaren 18ra arte**  
**DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLA**koen ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Ekainaren 18ra arte**  
**JOSE LUIS IRIGOIEN**en "Mendiak eta lainoak" argazki erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*  
**JOAN PALMER**-en "Tristeza" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*  
**PEDRO ARRIOLA**ren "Berlin" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

## lehiaketak

- ✓ **Ekainera arte**  
**LI (BURU-HAUSGARRIAK) IRAKURKETA ETA IKERKETA LEHIAKETA.**  
*Juan San Martin liburategian.*
- ✓ **Ekainaren 15ean**  
**2013-KO SANJUANAK. EIBARKO EL CORTE INGLÉS.** 17.30etan, *El Corte Inglés-eko terrazan.*
- ✓ **Ekainaren 22ra arte**  
**III. MASKOTA LEHIAKETA.** Eguna eta tokia: *Uztailaren 6an, El Corte Inglés-eko terrazan.*  
 Izen-ematea eta informazioa: *El Corte Inglés-eko animalien sailean.*

## farmaziak

- ✓ **barixakua 7**  
 EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
 GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- ✓ **zapatua 8**  
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **domeka 9**  
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- ✓ **astelehena 10**  
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- ✓ **martitzena 11**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- ✓ **eguztena 12**  
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
 GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- ✓ **eguna 13**  
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- ✓ **barixakua 14**  
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
 GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

8						4
9		3		8		5
	4			2	9	
		7		9		8
			4	6		
5			8		7	
		4	9			2
7				4	5	1
	9					7

## SUDOKUA

8	1	5	6	3	9	4	7	2
9	3	6	2	4	7	8	1	5
7	4	2	8	5	1	9	3	6
6	8	3	7	9	2	5	4	1
2	9	4	5	1	8	7	6	3
1	5	7	4	6	3	2	9	8
4	2	8	1	7	6	3	5	9
5	6	9	3	2	4	1	8	7
3	7	1	9	8	5	6	2	4

AURREKOAREN EMATZA

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Urkizun logela biko pisua alokagai. Tel. 675-714404.
- Donostian udarako pisua alokagai. Hilabete osorako edo hamabostaldira-ko. dena kanpora begira. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 688-604025.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 666-784526.
- Elgetan pisua alokagai. 2 logela, 2 komun, sukalde-egongela zabala eta balkoia. 70 m<sup>2</sup>. Oso egoera onean. Tel. 618-272943.
- Logela alokagai Eibarren. Tel. 686-735525.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garaje bikoitz itxia salgai Bittor Sarrasketan. 32 m<sup>2</sup>. Tel. 617-336462.

### 3.2. Errentan

- Garajea itxia alokagai Urkizuko do-reetan. Tel. 616-959625.
- Garajea itxia alokagai Asua-errek-kan. Tel. 616-959625.
- Garaje itxia alokagai Asua-errekan. 90 euro hilean. Tel. 686-224524.
- Aisialdirako lokala alokagai, barrare-kin prestatuta. Koadrilendako apropos- (adin nagusiok). 80 m<sup>2</sup>. Udal or- denantza berriari egokitua. Tel. 679-425467.
- Ilepaindegi berritua alokagai. Mer- ke. Atenditu ezin delako. Tel. 699-682310.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602-022174.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 690-783065.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 699-232823.
- Emakumea eskaintzen da interna zein orduka lan egiteko. Tel. 627-768686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna edo orduka. Tel. 653-075865.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. Esperientzia. Tel. 671-258740.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 697-372374.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Arduratsua eta esperientziarekin. Tel. 695-719744.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta hoteletan lan egiteko. Tel. 608-474923.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 687-362773.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-068313.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-004374.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 606-050793.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Baita jaiegunetan eta udan ere. 15 urteko esperientzia. Tel. 680-463892.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-395829.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-761487 eta 685-836396.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- Erizaintzan titulaturia eskaintzen da nagusiak edo gaixok zaintzeko. Tel. 680-952793. Bea.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. Tel. 688-802701.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 647-031356.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 625-895460.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 608-866535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 653-075865.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-887814.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, umeak edo nagusiak zaintzeko, hoteleko kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
- Neska euskalduna eskaintzen da udako oporretan umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. Tel. 618-814064.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-180233.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-463492.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Orduka eta baita asteburuetan ere. Tel. 657-156254.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 618-354218.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 627-652870.

### 4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da 4 urteko umea zaintzeko udan. Tel. 658-693882.
- Kamarera erdialdeko kafetegi batean. Bidali curriculum: tre@euskal-net.net.

## 6. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Enpresa Zientzietan diplomatuak Ingeles, Matematikak eta Euskara klaseak ematen ditu. Haurrendako klaseak eta ikasturtea gainditzeko. Tel. 662-110395.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Irakurtzeko liburuak eta entziklopedia salgai. Tel. 688-686639.
- Narruzko sofa-oheta beltza salgai. 3 plazakoa. Erosoa eta merkea. 280 euro. Tel. 687-326230.
- Bigarren eskuko bizikleta salgai. Trek 750 Multitrek. Urteetan erabili gabe. 50 euro. Tel. 679-326038.
- Seme nagusiarentzat bugaboo sillon jartzen den patinetea erosiko nuke. Tel. 647-034201.
- Fitness bizikleta estatikoa salgai. Prezio eta egoera onean. Tel. 658-756462.
- 11 tomoko "La Gran Enciclopedia Larousse" (25 euro) eta 8 tomoko "Reader's Digest" hiztegi entziklopediko ilustratua (12 euro) salgai. Tel. 943-120030.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Umearen betaurrekoak galdu ditut Aldatze eta San Agustin arteko bidean. Quicksilver markakoak. Urdinak, kolore bereko fundaren barruan. Tel. 629-526767.



Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

# CAPI

## LASER DEPILAZIOA

30€

- Aurpegia
- Izterrondoak
- Besapeak
- Bularra
- Sabelaldea ...

**Hanka osoak  
+  
Izterrondoak**

90€

## Masajeak

OSTEOPATIA  
TEKNIKA METAMORFIKOAK  
MASAJE TERAPEUTIKOAK  
REFLEXOLOGIA  
MASAJEAK: THAI,  
KALIFORNIARRA, BALIKOA



## Gorputz tratamenduak

**TEKNIKAK:** Kabitazioa / Radiofrekuentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

**5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa**



LEHEN

ORAIN

LEHEN

ORAIN

BESOAK

ESTRIAK

lehen

orain

lehen

orain

## Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrekuentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)



BETILE LUZAPENAK  
GEL ATZAZKALAK  
IA BETIRAKO  
MANIKURA

...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
itzu  
tzu  
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelerara,  
gazteleratik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.

- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.



[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)




# ZEZENBIDE AUTOESKOLA



**INFORMA ZAITEZ!**



San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
**EIBAR**



## Belaustegi Baserria

**14. urteurrenako menu berezia**

**JATETXEA**

- Aperitiboa
- Foie-moussesa sagar berdearen konpotarekin
- Txangurro eta marisko entsalada tipul kurruskariarekin
- Ganboiak plantxan
- Pata negraren brotxeta 5 piperbeltzen saltsarekin.
- Gerezi-izozkia yogurth zoparekin
- Kafea eta Etxeko kriantza




Prezioa: 38'50 euro + BEZ (%10)

**Informazioa eta erreserbak:**

**Tel. 943 74 31 02**

**www.belaustegi.com**



**ELGOIBARKO**  
**San Miguel**  
gainean

*Portxe-jardineko jaima arabiarrean bazkaldu eta afaltzeko AUKERA*